



Kaixo! Egun on! Melody Taypin naiz. Kiblawanen bizi nintzen (Hego Davao, Filipinak) eta orain “Holy Cross of Kiblawan Inc.”-en ari naiz ikasten, Indonesian. Gure eskolak 2020ko martxoaren 17an amaitu ziren, bat-batean.

Koronabirusa oso azkar zabaldu zen gure herrialdean eta jende askok sufritu egin zuen. Etxean geratu ginen birusa ekiditeko eta, ondorioz, lehen jendez gainezka zeuden lekuak orain hutsik daude.

Birusa ustekabeen hedatu zenez, nire familiak finantza-arazoak izan zituen eta dirua uzteko eskatu behar izan genien gure senide eskuzabalei.

Gaur egungo egoera pentsaezina zen erabat, eta oso triste sentiarazten nau. Jende askok negar egiten zuen ezkerretik eskuinera dauden arazo amaigabeengatik.

Baina pandemia hau oso latza izan den arren, irakaspenera asko irakatsi dizkigu. Gaur irakaslerik gabe egon naiz ikasten eta oso zaila izan da, eta horri esker konturatu naiz beren ahaleginak baloratu behar ditudala eta haiekin atsegina izan behar dudala. Horretaz gain, jende guztiak gobernuarekin kooperatu behar du pandemia honekin amaitzeko, eta gauzak ezinezkoak badirudite ere, geure buruarengan eta bereziki gure Jainkoarengan sinetsi besterik ez dugu egin behar.

Ez galdu itxaropena eta sinetsi beti Jainkoarengan, berak bide bat irekiko baitu. Mila esker.

Eraldatzen
hasteko prest